

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3756

1412/2022 EBAZPENA, uztailaren 28koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bitartez Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Goi Mailako Tituluduna kategorian (Ergonomiako eta Psikosoziologiako Prebentzioko Teknikaria lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko langile izateko hautaketa-probetarako epaimahai kalifikatzailea izendatu den.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren bidez, onartu egin dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2018 eta 2019an iragarritako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 17ko 908/2022 Ebazpenaren bidez, Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Goi Mailako Tituluduna (Ergonomiako eta Psikosoziologiako Prebentzioko Teknikaria lanpostu funtzionala) kategoriaren oinarri espezifikoa onartu ziren (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako).

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Epaimahai hori Ebazpen honen eranskinean agertzen diren kideek osatuko dute.

Bigarrena.— Ebazpen honek daukan egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.— Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 28a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

ERANSKINA

ERGONOMIA ETA PSIKOSOZIOLOGIAREN PREBENTZIORAKO GOI-MAILAKO
TEKNIKARIA

Batzordeburua:

- Titularra: Arrizabalaga Azurmendi, Jose Javier.
- Ordezkoa: Gabilondo Larrañaga, Elena.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: Barreira Mendez, Rocio.
- Ordezkoa: Bañuelos Diaz, Maria Inmaculada.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Dominguez Fernandez, Maria Teresa.
- Ordezkoa: Elguea Uranga, Elsa Maria.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Calpasoro Damian, Jose Maria.
- Ordezkoa: Fernandez Elorduy, Juan Luis.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Garcia Berasategui, Maria Jesus.
- Ordezkoa: Errazquin Ugarte, Maria Aranzazu.

Idazkaria:

- Titularra: Garcia Fernandez, Jose Alberto.
- Ordezkoa: La Fuente Zugasti, Carlos.